

Poesia Lopez

Patxi Lopezek –barkatu itzulingerurik gabe hasteagatik– Euskal Letren Urrezko Aroa (ELUA) ekarriko du, dudarik ez, bere legegaldian. Bi egunetan egin du gure poesiaren alde EAJko lehendakariak hogeita hamar urtetan baino gehiago. Jeltzaleek, sare industrialean kezkatuago, ezingo lukete “berea” den poetaren izenik aipatu, Lizardi edo Lauaxetaren ondorengorik ez behintzat; sozialistek, berriz, ezustean –ordura arte inork ez bailieke horrelako jaidurarik susmatuko–, gaur egungo literatur sentsibilitate guztien espresioak bereganatu eta aldarrikatu dituzte.

Baina nabarmena da Patxi Lopezek aukeratutako bidea laburra dela. Olerkariaren hitzak erdizka aipatu behar izan ditu orain arte, horrek gainera ekarri dizkion kritika aho bikoekin (Sarrionandiaren poemak, euskal presoen itzulera isildu; Szymborskarenean, “zuhurtzia” hitza kendu eta “bakea” esan, bere mezua borobiltzeko; Uriberenean, erbestera eta etsipenerako deiak inausi...). Horrexegatik, eta gaizkiulertu larriagoak saiheste aldera, nago EAEn hartu beharreko sistema Erresuma Batuko Erret Poetarena litzatekeela.

Karlos II.ak John Dryden lehen *poet laureate* izendatu zuenetik, Erresuma Batuan beti egon da poeta bat Errege-Familiaren gertaera nagusiei buruzko konposizioak burutzeko ardura bete duena. Izendapena, gaur egun, ez da hil artekoa, hamar urterakoa baizik, eta kargua ohorezkoa da gehienbat. Egun hauexetan hautatu dute lehen erret poeta emakumezkoa, Carol Ann Duffy eskoziarra, 6.000 libera eta 600 botila xerez ardo kobratuko dituena. Hau karga gozoa William printzearen panegiriko idatzi beharra, ekainaren 21erako, beraren hogeita zazpigarren urtebetetzean!

Nik uste dut –eta batek pentsa lezakeen baino serioagotan ari naiz– gurean ere ber-



JOSU SANTESTEBAN

din egin genezakeela: hainbat urterako lizitazio bat esleitu, Eusko Jaurlaritza berriaren ekintza instituzional eta emozional guztiak ospatzeko eta goratzeko. Esaterako, “Patxi Lopez jaunak Agintaldiko Lehen Ebaspena sinatu zueneko Ajouria Eneako akazia baten itzalean”, “Lehendakariak Etorkizunari begira itxaropentsu”....

Inork gutxi ukatzen du poesiaren etorkizun beltza. Isiltasunaren poesia, puruaren puruaz hutsala, edo narratibotasunerako joera suizidak entseatu dira, guztiarekin ere

poesian interesik ez duen herritar irakurlearen etxeko ateraino hurbiltzeko saio, agidanek, alferrikakoan –eta hau ez da saldukeria?–. Egoera honi buelta emateko modua poesiak galdu duen eta inoiz galdu behar ez lukeen papera berreskuratzea litzateke. Poesiaren historian sorkuntzaren motor nagusia, bekaizkeriarekin batera, horixe izan baita: balakua eta honek ekar lezakeen etekina –haragizkoa, jasotzailea lagun maitatua bada; edo diruzkoa, mezenas baten kasuan–, artearen gurpilak aurrera –edo gora– egin zezan ahalbidetzen baitzuen. Eta azkenean poeta benetan onak –urreak sutan legez– horretan frogatzen du bere burua hobekien, errealitate grisak emandako harrietatik ehun baliotsu bat sortuta, demagogiaren –edo topikoen– mugaraino arriskatuz eta bizirik atereaz, zeren benetan merezi duen lanak biziraunen du, sorrarazi duen zirkuntantziatik aske.

Eta, berriz diot, aginteak, gorteko poeta balu, sortzaile bere-kasako, erostezin –edo garestiago erosgarri– eta are errebeldeen olerkietara jo eta perbertitu behar izan gabe, ehuneko ehunean espreski elaboratutako material frexko, egoki, moldatu behar gabekoa eskuratuko luke eta euskal literatura zinez akuilatuko. ■

« Aginteak, gorteko poeta balu, sortzaile bere-kasako, erostezin eta are errebeldeen olerkietara jo eta perbertitu behar izan gabe, ehuneko ehunean espreski elaboratutako material frexko, egoki, moldatu behar gabekoa eskuratuko luke eta euskal literatura zinez akuilatuko »



irudia:

Antton Olariaga